JUAN MARI

Enpresako arduradun euskalduna

"Euskarak laguntzen du harremanetan. Baina ez dugu euskararen beharrik sentitzen gure lanerako. Euskarak ez digu balio ikertzeko eta saltzeko, eta barruan batik bat gaztelaniaz dira harremanak

53 URTE, ZORNOTZA

LANA DONOSTIAN

IBILBIDE PROFESIONALA

- Goi-mailako ikasketak, masterra eta doktore tesia ditu.
- Teknologia arloko ikerketan eta proiektuen garapenean jarduten du.
- Kudeaketa arloko ardura postu batean dihardu.
- Administrazioarekin eta unibertsitateekin harremana dauka.
- Nazioarteko proiektuekin lan egiten du sarritan.
- Arlo formaleko bere lanaren zati handi bat ingelesez egiten du, eta beste zati bat gaztelaniaz.
- Ahal duenean, ahoz eta idatziz euskaraz komunikatzen da, enpresa barrukoekin eta kanpokoekin.

MOTIBAZIOAK

- Orain unibertsitatean ikasketak euskaraz egiteko aukera zabala izateak pozten du.

KEZKAK

- Ikertzaileentzat baldintza egokiak sortu nahi ditu.
- Gazteak ez ditu ikusten euskararen aldeko jarrera aktiboarekin.
- Zail ikusten du etorkizunean euskarak tokia izatea zientzia eta teknologia esparruan.
- Bere enpresa aurrera ateratzeaz arduratzen da.

NARRATIBAK

- **Talentua (ber)erakartzeko** baldintza egokiak sortu behar dira, beraien ibilbide profesional oparoa euskal enpresetan egin dezaten.
- Unibertsitatea asko aldatu da. Orain **ikasketak euskaraz** egiteko aukera dago.
- Gero eta gehiago dira **teknologietan bestelako hizkuntzak** txertatzeko erraztasunak eskaintzen dituztenak.
- Pertsonen arteko **harremanetarako erabili** behar da euskara.
- Teknologia munduan **kalitatezko euskara** bultzatu behar dugu, ez bultzatu bultzatzeagatik.
- **Lehiakortasunak eta euskarak** ez daukate loturarik.
- Enpresa barruan euskararen ezagutza eta erabilera bultzatzea ona da, beti ere **lana hobeto egiteko** baldin bada.
- Langileen artean **euskararekiko inplikazioa** apaldu egin da eta hori lanean ere nabari da. Euskaraz egiten den apurra eremu informalean egiten da.
- Gizarteari **euskararen aukera** eskaintzea da garrantzitsua, erabiltzaileen kopuruan fokua jarri gabe.
- Orokorrean **enpresek ez dute eskatzen** proiektuak euskaraz garatzeko.
- Kultura ezberdinetako pertsonen arteko harremanetan, hizkuntzaz aparte, **kultura ere oztopo** handia izaten da.